

# J.-D. Gendron eta W. Mackey-rekin elkarrizketa

Canadako pentsalariak badute axalez halako atsegintasun bat edukazio onezko gogortasun apurtxo batekin nahasturik. Horrelako bi pertsonekin hitzegitekoak gara. Beren Herria txiki izatearen korapilo eta nolakotasunak (Quebec herrialdea, lurrez agitz zabala izan arren, 400 milioe anglofonoz inguraturik dago) beren mugaz harantz ezagun izan daitezela nahi lukete. Baina beldurti xamar azaltzen dira harremanetan. Gehiegizko berrikerari lekurik ez diote eman nahi.

C.I.R.B.ko (Centre International de Recherches sur le Bilinguisme) areto batetan gaude. Etxe handi hau lehen apaiztegi zen; izan ere, orduan etxe handiak behar ziren hainbeste apaizgai bizi zitezen; gaurregun etxe txikiagotan ere erraz kabitzen direla-ta, Quebec-eko Eliza Katolikoak Laval Unibertsitateari utzi dio aipaturiko ikertzaileen egoitzetarako. Han dituzte, beraz, bulegoak.

Gaurregun Jean-Denis Gendron da zuzendari eta William Mackey izan zen eraikitzaile. Biak dira izen handiko ja-kinduria alorrean.

Hona, Canadian ohitura denez, kafea hartuz, egindako elkarrizketa.

ZUTABE: Gure lehenengo galdera oso zabala duzue. Izan ere, ikuspegi poli-

tiko, sozial eta kultural baten neurritakoak ditu mugak. Quebec-ek izugarriko ahaleginean dihardu herrialde osoa frantsesten. Hori lortzeko itxaropenik bai al duzue? Zer pauso eman beharko dira?

JEAN-DENIS GENDRON: Bai, galdera hori oso zabala da, dudarik gabe. Historiaren azkeneko sustraietara jo beharko genuke gizaldi askotako denbora luzean zehar gertatu diren gora-beherak aztertzeko. Hasi historiaren ikuspegitik eta frantseseta lortzearen eskabideak ikusi beharko genituzke.

WILLIAM MACKEY: Zalantzarik gabe, problema hau gizarte-maila guztiei dagokienetakoa da. Kultura, afektibitate, politika-alorrak ukitzen ditu eta hau dena barru-barruko eta bere-berea du gizonak. Gure elkarrizketa gehiegi zabal ez dadin, komeniko litzateke Quebec probintzia frantsesetako egiten ari garen pausoetara mugatzea. Hitz batez: 101 legearen, hau da «Charte de la langue française»ra iristeko egin ditugun ekintzak azaltzea, eta baita ere lege horrek dakartzan gizarte-esparruko eraginak aipatzea.

J.-D. G.: Horrela da. Arbasoen hizkuntzaganako maitasuna, abertzaletasuna eta beste zenbait faktore afektibo alde batera uzteke, onuragarri da, nos-

ki, hizkuntzari buruzko lege-egoera aztertzea, beste ekintza asko egin ahal izango bait dira horretan finkaturik.

ZUTABE: Ongi da. Ondo iruditzen bazaizue, has gaitzen Canadako soziologiariek «Hizkuntz arazoa» deitzen dioten txostenaren ingurunea deskribatuz.

J.-D. G.: Lehen aldira jo beharko du: Espainiar, Portugaldar eta Frantziarren kolonizatze indartsuaren arabera, 1608an beren mende hartu zuten Frantziarrek Quebec-eko lurraldea, eta ingelesek, berriz, hego-sortaldea: Ontario. Baina ingelesek Canada osoaren nagusitasuna nahi, eta Quebec-eko lurraldeetan sartu ziren indarrez. 1757an, Abraham Zelaietako borroka irabazi ondoren, Quebec, lehen frankofono zena, beren mende hartzen dute bai politika aldetik eta bai hizkuntz aldetik.

1791ean eraikitzen da lehenengo Parlamentua eta Canada bi herrialdetan banatzen dute: Canada Garaia (Quebec) eta Canada Behea (Ontario). Elebitasuna legeztatu zen, baina 1837ko frantziarren matxinadaren ondorioz, 1842an bi herrialdeen bateratzea dakarren ituna izenpetzen da, eta ingelesa hizkuntza bakartzat ezartzen. Bost urte geroago frantsesa hizkuntza ofizial bezala onartu zuten, eta 1847ko Konstituzioak, gaurko Canada Estatu federatu bihurtzen duenean, honela dio (133 Art.): «Bai Gobernu Federalesko eta bai Quebec Herrialdeko Gobernuak erakunde gutzietan frantsesa eta ingelesa hizkuntza ofizialak izango dira bai Parlamentuan eta bai Justizia Gorteetan ere».

W. M.: Lege honek 1960 arte iraun zuen indarrean. Hamaika zuzengabeke-ria egin da horren izenean lehen frantsesaz egiten zen lurraldeetan.

1.—*Eskoletako* injustiziak, pixkan-pixkan hezkuntza ingelesa ezarri bait zitzairen, batez ere Quebec-era etorrirako kanpotarrei.

2.—*Laneko* hizkuntz mailan, ia dena ingelesez egiten bait zen. Hain handia

zen Estatu Batuetako hurbiltasunak zuen eragina.

3.—*Administrazioko* hizkuntz zuzengabeke-ria; ia dena ingelesez egiten zen, nahiz eta funtzionariak frankofonoak izan.

Honek guztiak herriari min ematen zion eta borroka ugari eta oso gogorrak izan ziren kaleetan. Gobernuak, kezkatu-rik bait zegoen, «Commission d'enquête» eratu zuen frantsesaren Quebec-eko egoera azter zezan.

ZUTABE: Nahiko harrigarri da zuek dena hitzeginez eta batzordeak sortuz konpontzen duzuela, baita afektibitate eta politikarekin zerikusi galanta duten arazoak ere.

W. M.: Bai, legegintza aldetik, nola-bait ere ingelesen harikoak gara. Zatiketa batera iritsi aurretik, hitzegin egiten da, eztabaidatu, aztertu, eta ia beti aurkitu ohi da irtenbideren bat. Ezezaguna izango zaizue agian gure legegintzan hain garrantzitsua den «Commission d'enquête» hori. Hona zer den gutxi gora-behera:

Herrialdeekin zerikusi handia duten gaiak ezin uki daitezke, arazoaren inguru soziologikoa osoro eta sakonean eza-gutu gabe. Horregatik Gobernuak ezin menderatu duen horrelako problemarik eskuartearen duenean, ikerketa-talde bat sortzen du. Arazoa dagokien indar gutzietei dei egiten die sakonki azter dezaten.

ZUTABE: Eta norainoko indarra dute txosten horiek erabakiak hartzerakoan?

W. M.: Bai, horra gure sistemaren beste berezitasun bat: «indar moralaren» balioa. Batzordeak, txostena bukatzen duenean, zenbait ondore eta «gomendio» adierazten du. Ez dute gehiago gabe lege-indarrik, baina emandako gomendioek Gobernuaren haien edukiari bide ematera bultzatzen dute.

ZUTABE: Azter dezagun, bada, batzorde horren lana. Zu, Jean Denis Gendron, zuzendari izan zineneko gero, inor baino egokiago zara horren berri emateko. Zer metodo erabili zenuten?

J.-D. G.: Batzordeak hartu zuen agindua hauxe izan zen: iker zezala Quebec-eko frantsesaren egoera. Lanak lau urte iraun zuen, lehenbizi batean uste genuen baino bi urte gehiago, arazoa oso zabala eta nahastua bait zen; baina, denek diotenez, ez zen alferrikako lana izan. Sei pertsona ginen ikerketaren arduradun eta hauek beste zenbait talderen lana koordinatu zuten: soziologilari, estatistikako eta informatikako tekniko, etab. Bost epetan egin genuen lan osoa. Lehenengoa batzordea antolatzeari izan zen eta lana martxan jartzea. Bigarrena, inkesta, batzar, lantegietako ikustaldi eta abarren bidez datuak bilatzea... Hirugarren eta laugarrena txostenean azaldu behar zuten eran datuak sailkatu eta sistematzea; eta boskarrena, txostena bera idaztea. Guztí hau, lehen esan dizuedanez, 68ko abendutik 72ko abendura bitartean.

ZUTABE: Quebec-eko frantsesaren egoerari buruzko txostena, Raport Gendron izenez ezaguna bait da, hiru tomoakoa da; 400, 500 eta 600 orrialde dituzte. Labur-labur zein da bakoitzaren edukia?

J.-D. G.: Bai, laburtu egin beharko dugu...

Lehenengo tomoak, «Laneko hizkuntza» deritzaiotak, frantsesaren erabilerraren bi alderdi aztertzen ditu:

1.—Frantsesaren erabilera laneko ekintzetan (langileriaren azterketa, laneko harremanak, agintarien hizkuntza, makinetako oharrak, etab...).

2.—Kontsumo-ekintzetako frantsesaren erabilera (negozioetako hizkuntza, publizitatekoa, agintaritzarena, eskole-takoa, auzitegietakoa, administraziokoa, komunikabideetakoa, etab...).

Bigarren tomoak, «Hizkuntz eskubi-deak», inkesta egin zeneko lege aldetikako egoera aztertzen du. Atal honen azkenean gero «Charte de la langue française»ren oinarri izango zen zenbait gomendio ematen zaio legegileari.

Hirugarren tomoak «talde etnikoen» azterketa egiten du. Lau atal ditu: Emi-

grazioak, integrazioa eta talde etnikoen eragina; talde etnikoak eta giza eskubi-deak; emigranteen eskubi-deak; eta, azkenik, Indio eta Eskimalen egoera.

ZUTABE: Eta diozunez, tomo bakoitzak badu azkenean praktikotasun aldetik oso baliagarri den zerbait: geroko legearen oinarri izango diren ondoreak.

W. M.: Bai, hala da. Zatikako lege bat edo besteren ondoren, 78ko azarotian Parlatuak onartu zuen azkenean delako «Charte».

ZUTABE: Hori aztertu aurretik, iruditzen zaidanez, lege horrek, nahiz eta aitzinean bere esparrua kultura edo heziketa izan, badu zerikusi eta eragina beste zenbait alorretan ere: gizartean, ekonomian, politikan ere bai.

J.-D. G.: Zalantzarik gabe. Hizkuntzako independentzia beste autodeterminazio bazuetarako bide izan daiteke, bai ekonomian eta bai politikan. Arazo honi buruz eztabaida ugari dago gaurregun, baina gure elkarrizketaren haririk aldendu egingo gintuzkete.

ZUTABE: «Charte»k Quebec-eko gizarte-mailako alderdi guztiak jorratzen ditu: bai hizkuntzaren gaurko egoera eta baita herrialdea frantsesteko eginkizun dauden lege-arauak ere.

W. M.: Textua aztertu aurretik, beste gauza bat aipatu nahi nuke: legeak sortu zuen giroa eta izan zuen arrakasta. Ez bait geunden legearen lehenengo hitzen erakoak entzuten ohiturik, eta hau da, izan ere, legearen oinarritzko aitormena: «Frantsesa da Quebec-eko hizkuntza ofiziala». Herrialdeko hizkuntza bat eta bakarraren aitormen ofiziala zen. Honek eta, ia beti, ingelesari buruz ari denean «beste hizkuntza» esateak, anglofonoen artean zenbait haserre eta amorrazio sortu zuen, baina lasaituak dira. Jean-Denis-ek ager dezake legearen edukia.

J.-D. G.: Bai, lege-indarrez frantsesa bilakatu zen Quebec-eko hizkuntza ofiziala. Beraz, hurrengo atalen zeregina zera zen: zein alorretan izango zen ze-

hazki ofiziala, nolako baldintzez eta zernolako erakundeak sortu beharko ziren legea benetan gauzatzeko.

Legearen ondorioei dagokionez, gizarteko maila guztietan ari dira zabalitzen: Frantsesa da legegintza eta justiziako hizkuntza. Administrazio, enpresa eta garraio publiko, komunikabide eta abarretako hizkuntza. Hezkuntzan ere horixe erabiltzen da.

«Charte»k sortu zuen beste alderdi garrantzitsua zera da: Frantseste-lana benetakoa eta eraginkorra izan zedin sortu zituen erakundeak:

- L'office de la langue française.
- Le conseil de la langue française.
- La commission de surveillance.
- La commission de toponimie.

Bakoitzak bere eginkizun berezia du datozen egunetako ikustaldietan ohartuko zaretenez.

ZUTABE: Nolako harrera egin dio Gobernu Zentralak lege honi?

J.-D. G.: Quebec-eko Parlamentu autonomoak sortutako legeek badute halako ahultasun bat: antzeko gaietan Gobernu Federalak emandakoekin ados ez egotea gerta daitekeela. Nazioko Konstituzioak du nagusitasuna; beraz horrelako auzietan Gobernu Zentralak «ez-konstituzionaltasun-errekursora» jo dezake. Klausula Quebec eta Klausula Canada-ren arteko auzian, hizkuntz arloan,

Quebec-tarrek auzia galdu egin dugu eta gai honetan atzerakada gertatu da.

Baina legearen eragina ikaragarria izan da. Alde batetik, geroztik Gobernu Federala elebitasunez gehiago arduratu da; eta, bestetik, ikusgarria izan da lehen aipaturiko alorretan frantsesak egin duen aurrerakada. Horrela, Montreal, orain bost urte erabat hiri ingeles azaltzen zena (iragarkiak, ikuskizunak, laneko elkarrizketa, etab.), gaur frankofono izateko zorian dago. Halere, ondotxo dakigu egin behar dugun bidea luzea eta zaila izango dela.

W. M.: Horixe da nik azpimarratu nahiko nukeen gaia: begi-bistakoa da kontzientzia nazionalik, bihotz berotasunik eta hizkuntza eta herriaren maitasunik gabe ezin daitekeela ezer lortu; baina indar eta gogo horiek denak hauts bihur daitezke, hizkuntzarekiko antolamendu argi eta zehatzik ez badago. Muga honen barru dago, buru onez egindako lege batzuetatik hasi eta lege horiek gauzatu dituzten erakunde egokiak sorraraztea.

ZUTABE: Aurrean genuen beste kafe-katilukada. Nahiz eta berandu izan, ez zegoen lo Laval Unibertsitatea. Han «indioen udatxo» esaten dioteneko azkeneko eguzki printzak argi zeuden oraindik; udazkenaren bukaera zen eta egun gutxi barru hasiko zen ezinbestean Canada-ko negu luzea.